

Argitaratzailea:



Laguntzailea:




Koldo Eleizalde Lehiaketak

XXIX. edizioa 2014 Bergarako Udala

Euskara Batzordea

2014 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXIX. edizioa



Ipuina • Bertsoak • Komikia

Bergarako Udaleko Euskara Batzordea

2014 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXIX. edizioa

Ipuina

Komikia

Bertsoa



Bergarako Udaleko Euskara Batzordea

Antolatzailea:



Bergarako Udala
EUSKARA BATZORDEA

Laguntzailea:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 42-2015

SARRERA	5
---------------	---

Ipuina

1. taldea:

Saria: Pantxika nire laguna. June Kalboetxeaga	7
Saria: Elefantea eta azeitunak. Elene Mendizabal	11
Saria: Hartz txikiaren abenturak. Zaloe Unamuno	15

2. taldea:

Saria: Gizona eta lamia. Xabier Igartza	19
Saria: Zuren bizitza. Irati Gorosabel	23
Saria: Zapaburua. Jokin Askargorta	27

3. taldea:

Saria: Muxuaren ipuina. Jone Moñux	31
Saria: Arantzik gabeko arrosa. Leire Arietaleanizbeaskoa	35
Saria: Hosto ezberdinaren ipuina. Itziar Mujika	39

4. taldea:

1. saria: Paper batekin bizitza. Mireia Arteaga	43
2. saria: Denbora-makina. Jone Ibarra	49
3. saria: Amestutako abentura. Alazne Soto	55

5. taldea:

1. saria: Bergarako azula. Mikel Babiano	61
2. saria: Hariak. Ana Moñux	71
3. saria: Lepokoa. Elene Etxaniz.....	79

Bertsoa

1. taldea:

Saria: **Bergarako auzoak**. Markel Laskurain87

Saria: **Oporrak**. Ainara Rubio91

2. taldea:

1. saria: **San Martzialak**. Beñat Loidi95

2. saria: **Oporrak**. Yasmin Chohan.....99

3. taldea:

1. saria: **Egonean lan**. Urko Egaña103

Komikia

1. taldea:

Saria: **Sua komikian**. Mikel Ballesteros107

Saria: **Zirkulazio aparatua**. Huma Jabbar109

2. taldea:

1. saria: **Untxi magikoa**. Nicole Suarez111

2. saria: **Beckenbauer vs Cruyff**. Iker Aldai113

3. taldea:

1. saria: **Naturak ez du ahazten**. Joseba Carnicero115

2. saria: **Kafea hartu ta... hor konpon**. M^a Angeles Padilla117

Koldo Eleizalde lehiaketaren XXIX. urteurren honetan ere, ehunka herritar animatu dira euren euskarazko sorkuntza-lanak guztion eskura jartzen.

Bergaran gaur egun dugun sorkuntza oparo horren isla txiki bat da eskuartean duzun liburua. Bertan ipuin, bertso... ugariz gozatzeko aukera izango duzu.

Hala ere, ez dira hemen agertzen Koldo Eleizalde lehiaketan saritutako lan guztiak. Antzerki, txiste eta ipuin-kontaketez gozatu nahi baduzu, [www.bergarako euskara.net](http://bergarakoeuskara.net/) webgunera (<http://bergarakoeuskara.net/> grabaketak) jo dezakezu. Han aurkituko dituzu hemen idatziz agertzen diren bertsoen grabaketak ere. Gainera webgunean aurkeztutako ikusentzunezko lan guztiak jaso dira eta aurreko urteetakoak ere bertan agertzen dira.

Ez nuke sarreratxo hau bukatu nahi, Udalaren izenean, partehartzaile guztioi zorionik beroenak eman gabe. Hemendik aurrera ere, sortzaile izaten eta hizkuntzarekin gozatzen jarraitzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Maren Belastegi
Euskara batzordeburua

Ipuinak


Lehenengo taldea
Saria



June Kalboetxeaga

Pantxika nire laguna

Bakuzaga 14



Pantxika nire laguna

Pantxikak egunero ikusten zuen Martxel txikia bere betaurreko lodi eta handiekin errepidea pasatzen ikastolara joateko. Egunero etortzen zen ordu berdinean eta atzetik bere eskolako lagunak burlaka.

Pantxika semaforo bat zen baina semaforo berezia. Inork ez zekien, baina Pantxikak hitz egiten zuen, eta oso triste jartzen zen Martxel hain triste ikusten zuenean. Gainera, Martxel beti berandu heltzen zen ikastolara ez zituelako semaforoko koloreak bereizten eta beldurra ematen ziolako bestaldera pasatzeak.

Baina egun batean, Pantxikak, Martxel bere ondora heldu zenean esan zion:

–Mutiko, hemendik aurrera nik abisatuko dizut noiz pasa behar duzun bestaldera.

–Baina, zu nor zara?

–Ni Pantxika naiz, semaforoa.

–Baina semaforoek ez dute hitz egiten!

–Ba, nik bai. Baina ez esan inori.

Handik aurrera Martxel eta Pantxika oso lagun onak egin ziren eta Martxel lasai-lasai pasatzen zen kalearen bestaldera.

Martxelen lagunak, berriz, beti berandu heltzen ziren ikastolara, Pantxika, mutikoak ikustean, beti gorri ipintzen zelako eta kotxeendako berde.

Handik aurrera Martxel beti pozik heltzen zen ikastolara eta besteak, berriez, haserre.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Bergarako plazan.

Ipuinak

Lehenengo taldea
Saria



Elene Mendizabal

Elefantea eta azeitunak

Bakuzaga 14

Elefantea eta azeitunak

Bazen behin elefante bat zoo batean bizi zena. Bere izena Patxi zen. Patxik eta bere lagunak egunero eskursioak egiten zituzten zooan zehar. Egun batean bide berri batetik joan ziren eta gauza berri asko ikusi zituzten: lagun berriak, jolasteko leku berriak...

Bat-batean leku zoragarri bat ikusi zuten, piztina haundi bat. Piztina horren ondoan arbola asko zeuden. Elefanteak eta bere lagunak bainu bat hartzea pentsatu zuten.

Uretara sartu zirenean elefanteak ura edan zuen eta tronpan zerbait trabatu zitzaion. Bat-batean azkar-azkar irten zen uretatik.

–Baina nora zoaz hain azkar?

Eta elefanteak esan zion:

–Piztina honetako ura oso txarra da. Tronpan zerbait berdea eta borobila trabatu zait.

Tximinoa barrezka hasi zen:

–Ja, ja, ja, ja! Arbolatik jausten diren azeitunak dira.

Ipuinak

Lehenengo taldea
Saria



Zaloa Unamuno

Hartz txikiaren abenturak

Bakulzaga 14

Hartz txikiaren abenturak

–Aitona, kontaiguzu berriz gure istorio gogokoena.

Orain dela urte asko gertatu zen. Nire aitari Hartz Handi deitzen zioten eta pozik bizi ginen gure basoan. Oso jende jatorra bizi zen baso hartan. Nire etxe ondoko lakuan igel familia bat bizi zen. Zuhaitzik zaharrenean bizi zen Hontz Anderea ere han zegoen. Baina nire lagunik kuttunenena Periko untxia zen. Hain ondo bizi ginen!

Baina egun batean zerbait misterioetsua gertatu zen. Goizean esnatu eta telebista falta zitzaigun.

–Ain ene! Non ote da gure telebista? Nork lapurtu du?

Momentu hartan Hontz Anderearen oihuak entzun genituen:

–Ai ama! Non dago nire lepokoa? Nork lapurtu du?

Baina ez ginen bakarrak izan. Igel familiakoek ere sekulako garrasiak bota zituzten. Beraiei oso famatua zen koadro bat falta zitzaien. Zerbait egin behar nuen. Lapurra harrapatu!

Gaua iritsi zenean basoan ezkutatu nintzen. Halako batean azeria ikusi nuen. Poltsa haundi bat zeraman eta Periko untxiaren etxetik irteten ari zen. Jarraitu egin nion. Bere etxera zihoan. Sartu zenean leihotik begiratu nuen eta han ikusi nituen gure gauzak. Telebista, igelen koadroa eta Hontz Anderearen lepokoa. Azeria zen lapurra! Beraren etxera sartu eta borrokan hasi ginen.

–Hartu hau, hau eta hau!

Merezi zuena eman nion.

–Aitona ze ausarta zinen!

–Bai, ausarta izan nintzen. Gauza guztiak itzuli nituen eta berriz ere zoriontsu izan ginen.

Ipuinak

Bigarren taldea
Saria



Xabier Igartza

Gizona eta lamia

Bakuzaga 14

Gizona eta lamia

Orain dela gutxi, bazen iturri bat eta ondoan herri bat zegoen. Herri horretan gizon bat zegoen zintzoa eta beldurtia zena. Ilea alde batera eramaten zuen eta eguzkia baino horiagoa zuen.

Gau batean iturrira joateko gogoa etorri zitzaion. Emazteari esan eta han joan zen kantuan.

Iturrian zegoela, zer ikusiko eta lamia bat ikusi zuen kantari. Gizona zeharo txundituta gelditu zen. Lamiak esan zion ea bere morroia izan nahi zuen eta gizonak baietz esan zion, denbora guztian kantatzen jarraitzeko baldintzarekin.

Eta horrela egunak eta egunak pasatu ziren, eta emaztea urduritzen hasi zen eta iturrira joan zen. Han aurkitu zuen bere gizona lamiaren kantua entzuten. Emazteak lamiari ahoa itxi zion.

–Ja, ja, ja! Orain ahoa itxi-itxita duzu! –esan zion emakumeak.

Eta gizonak lamiaren kanta ez zuela entzuten konturatu zen, eta lamiaren morroia izateari utzi zion.

Eta gizona, badaezpa, ez zen inoiz gehiago handik pasatu.

Ipuinak

Bigarren taldea
Saria



Iratxi Gorosabel

Zuren bizitza

Bakunziaga 14

Zuren bizitza

Ipuin hau bihar gertatuko da.

Bihar Zu izena duen mutiko bat etxean egongo da.

Zu guztiz beltza da; beltzak ditu ilea, begiak, azala, kamiseta, prakak, gal-
tzerdiak eta zapatak.

Arratsaldean operatu egingo dute eta txuria bihurtuko da.

Txuria bihurtzen denean beltza izatea nahiko du.

Orduan pentsatzen hasiko da, azkenean ideia bat edukiko du, kolore akri-
likoak hartuko ditu eta sukaldara eramango ditu.

Koloretatik beltza hartuko du eta gorputz dena margotuko du.

Azkenean beltza izango da betiko.

Ipuinak

Bigarren taldea
Saria



Jokin Askargorta

Zapaburua

Bakuzaga 14

Zapaburua

Bazen behin basoko ibaian bizi zen zapaburu bat. Oso itsusia zen, ogro bat bezain itsusia zen aurpegiz, baina begiak ibai bat bezain urdinak eta politak zituen. Buztana ederra eta liraina zuen, begiak bezain urdinak.

Gure lagunari hegan egiteko gogoia sartu zitzaion baina ezin zuen. Zapaburua bere herriko udaletxera joan zen eta hauxe galdetu zion udaletxeko idazkariari:

–Herri honetan non aurkitu dezaket azti bat?

Eta erantzun zion:

–Joan zaitez 12 metro ekialdera eta han aurkituko duzun kobazulora sartu eta bertan aurkituko duzu.

Zapaburuak esan ziona egin zuen baina ez zuen aurkitu.

Aurrera jarraitu zuen eta berehala konturatu zen idazkariak 12 metro esan ziola baina 13 metro zirela.

Azkenean topatu zuen kobazuloa eta aztiarengana hurbildu zen. Honi behar zuena esan zionean, berehala edari bat eman eta esan zion:

–Hartu edari hau eta edan, baina baldintza batekin: ez duzu igeri egin behar!

–Baina nik igeri egin behar dut, zapaburu bat naiz! –erantzun zion.

Aztiak tramankulu bat eman zion igeri egin gabe uretan lasai ibiltzeko.

Denbora pasa zen, eta zapaburuak ez zuen igeri egin. Hegoak atera zitzaizkionean hegan egiten saiatu zen, baita mila aldiz saiatu ere, baina ezin zuen. Egunak eta egunak pasa zituen saiatzen, zoroaren pare, azkenean lortu zuen arte.

Herriko denek inbidia ziotenez zapaburua lainoetara joan zen bizitzera.

Ipuinak

Hirugarren taldea
Saria



Jone M^oñux

Muxuaren ipuina

Bakuzaga 14



Muxuaren ipuina

Bazen behin igel alai bat urmael batean bizi zena. Zelaietako bedarra bezain berdea zen eta sabela, berriz, horixka zuen. Jack deitzen zen.

Jack deitzen zen igel hori oso ipuinzalea zen.

Behin, ipuin batean, igel bati muxu eman eta printze urdin bihurtzen zela irakurri zuen. Hori irakurrita pozez jauzika hasi zen hau esanez:

–Bai! Beti nahi izan dut printze urdin izan! Krok!

Hori esan eta jendeari muxu eman nahian hasi zen. Baina ez zuen lortzen. Azkenean neskaxa batek igela ikusi eta muxu eman zion.

Igela pozez txoratzen zegoen:

–Aupa! Lortu dut! Printze urdina izango naiz!

Baina ez zen printze urdin bihurtu.

Igela ez zen triste jarri, pentsatu zuelako ez zela printze urdin izan behar maitatzeko, igel izanda ere maitatu ahal zela.

Ipuinak

Hirugarren taldea
Saria



Leire Arietaleanizbeaskoa

Arantzarik gabeko arrosa

Bakulzaga 14

Arantzarik gabeko arrosa

Bazen behin arantzarik gabeko arrosa bat Pinpi deitzen zena. Bergarako lorategi eder batean jaio zen. Ez zuen lagunik bere lorategiko arrosak ez zirelako arantzarik gabeko arrosa batekin fidatzen.

Egun batean esan zien bere lorategiko arrosei:

–Jaio nintzenetik nire buruari esaten diot: zergatik dituzte alde guztietako lorategietako arrosek arantzak eta nik ez?

Orduan Penpere izeneko arrosa batek erantzun zion.

–Egia da, ez naiz konturatu denok arantzak ditugula, zuk izan ezik.

Eta beste arrosa harroputz batek esan zion:

–Ja, ja, ja! Egia da. Zuk ez duzu arantzarik horregatik beti izan zara arantzarik ez duen arrosa zatar bat; eta gainera gu bezalako arrosak askoz ere ederragoak gara, arantzekin askoz hobeto gaudelako eta horregatik ez duzu lagunik.

Pinpiri arrosa harroputzaren hitzek min eman zioten eta negarrez hasi zen:

–Mua, mua, mua...

Arrosa harroputzak eta bere lagunek erantzun zioten:

–Hau bai arrosa negartia!

Egunak pasa ahala jendea hurbildu zen lorategia ikustera, eta umeak harripaketan jolasten ibili ziren gurasoek lorategia ikusi bitartean. Ume bat jolasten ari zela erori egin zen. Orduan arrosek esan zuten:

–Pinpi, umea zurekin katigatu da eta estropezu egin du!

Umeak bere gurasoei esan zien:

–Aita, ama! Arrosa honekin estropezu egin dut eta ez dit minik egin ez duelako arantzarik! Hau bai arrosa arraroa baina oso polita!

Handik aurrera Pinpi zoriontsu bizi izan zen arantzarik ez edukitzeak minik ez ematea esan nahi duelako.

Orduan, arrosa guztiek barkamena eskatu zioten Pinpiri berarekin gaizki portatzeagatik tontakeria batzuengatik. Eta, harrezkero, arrosa guztiek Pinpi bezalakoa izatea amesten dute.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila Bergarako lorategian!

Ipuinak


Hirugarren taldea
Saria



Itziar Mujika

Hosto ezberdinaren ipuina

Bakulaga 14



Hosto ezberdinaren ipuina

Bazen behin titare batean sar daitekeen herri bat. Herriaren antzekoa zen parke txiki bat ere bertan zen.

Herria ez bezala zuhaitz haundi-haundi bat zegoen parkearen erdian. Uda zen, beraz, hosto guztiak udare azala bezain berdeak zeuden.

Baina denen artean bazen hosto marroi bat ere. Hosto hori ezberdina zen beste guztietatik eta oso bakarrik eta triste sentitzen zen, gainerako hosto berde eta dotoreek barre egiten ziotelako. Gero eta barre gehiago egiten zioten hosto gaixoari.

Baina denborarekin udazkena heldu zen eta hosto berde guztiak marroi bihurtzen hasi ziren. Errudun sentitu ziren beste hostoari barre egiteagatik eta barkamena eskatu zioten den-denek.

Hortik aurrera zoriontsu bizi izan ziren zuhaitz horretako hosto denak.

Ipuinak

Laugarren taldea
1. saria



Mireia Arteaga

Paper batekin bizitza

Bakulzaga 14

Paper batekin bizitza

Kaixo!

Xabi naiz (nahiz eta nire amak haserretzen denean XABIER deitu), 13 urte ditut eta lehenengo aldia da eguneroko (zatar) hau idazten dudala (nire amak derrigortuta). Ni, Nafarroako herri batean bizi naiz, nire guraso gorrotagarriekin eta nire ahizpa Irenerekin.

Gaur ikastolako lehenengo eguna da, udako oporrak eta gero (...), eta uste dut, hau izango dela, idatziko dudan egun bakarra baina gaurko abenturek hainbat orri izango dute. Beno, goizean pasatu denarekin hasiko naiz...

Gaur goizean, nire amak ikastola-egunetan bezain goiz esnatu nau (kostata, baina bai), 8:00etan. Jantzi eta gosaltzera jaiki naiz, eta hara zer ikusi dudana, nire ama erosketetara joana zen jada, berarentzako, eta denentzako, arropa erosi du, baina ez dut uste inori gustatzen zaionik. Arrebari soineko beltz bat erosi dio, heavy-ena ematen zuena, aitari, loreak zituen alkandora bat, eta Mickey Mouse-n gorbata koloretsua, eta txarrena... nirea!!! Txandal arrosa bat, atzean Mickey eta Minnie musuka zituena, eta gainera Disney Land Parisekoa zen eta ezin zen itzuli. Nik uste, nahita egiten duela, izorratzeko egiten duela, gaizki portatzen naizelako eta ez ditudalako nota onak ateratzen. Ikastolara berandu heldu naiz, eta jolas-orduan gelditu behar izan naiz 100 aldiz "EZ NAIZ BERRIRO BERANDU ETORRIKO" idazten.

Eguerdian, jantokira joaten naizenez, Egoitzekin, ikastolako gaizto eta indartsuenarekin, joan behar izan dut eta sekulako beldurra pasa dut, eta sekulako sudur-mina, ez baita inoiz dutxatzen.

Arratsaldean, plastika izan dugu, eta ez naiz batere ona, baina onartu beharra dago, nire etxea (gutxi gorabehera), nahiko ondo dagoela. Euskarako irakasleak, esan digu, etxean ipuin bat idatzi behar dugula, zerbait fantastikoa, eta aldi berean, gure bizitzako zerbait izan daitekeen zerbaiti buruz. Baina ez dakit zer egin.

Ikastola eta gero, karate eduki dut, nire lagun minarekin, eta beste mugimendu batzuk ikasi ditugu, lapurren bat... agertzen bada gu defenditu ahal izateko.

Etxera heldu naizenean, ama, Eroskin egindako erosketak ateratzen zebilen, eta berehala esan dit, komuneko paper arrosa erosi berriarekin, nire logelari zegoen dena garbitzeko.

Ez diot kasu egin nahi izan, baina esan dit bestela zigortu egingo ninduela, eta nire logelara joan naiz. Heldu, eta berehala hasi naiz garbitzen, gero nire telesail gogokoena zegoelako, baina ohean bota eta "Wasapeatzen" hasi naiz oso nekatuta nengoelako eta papera zakarrontzira bota dut, ama etortzen bazen, garbitu dudala pentsatzeko.

Eta telebista ikusten nengoela, lo hartzeko zorian, ahots xeble bat entzun dut logelaren bestaldean. Gerturatzen joan naiz, eta ez dut ezer ikusi; horregatik berriro ohera joan naiz, eta berriro entzun dut ahots xelebrea. Poliki-poliki gerturatu naiz, eta ikusi dut papera zela hitz egiten zegoena. Eta galderak egiten hasi naiz:

–Nor zara?

–Zergatik hitz egiten duzu?

–...

Inkesta bat ematen zuen.

Kontatu dit papera egiten ziharduten langileek likido berezi bat eman ziotela, eta hortik aurrera hitz egiten duela.

Arratsalde guztia eman dugu hitz egiten, ama etorri den arte.

–Baina, Xabier, norekin zaude hitz egiten?

Ez nekien zer esan baina zerbait bururatu zait:

–Lagunekin nago hitz egiten, ez dakidalako zer etxeko lan ditugun, eta inork ez dakienez denei nabil deika.

Amak hasieran aurpegi arraroa ipini du:

–Baina, zuek etxeko lanak? Noiztik, ba, mutil?

–Ama, hemendik aurrera erabaki dut etxeko lanak egingo ditudala, baina horretarako zu hemendik joatea behar dut, kontzentratzeko.

Gero, paperak aholku bat eman dit, lagunengana nindoanean bera eramateko, eta ezetz esan diot, ikusten bazuten nire kontura barre egingo zutelako. Baina esan dit, berak badakiela nola lortu, maite dudana neska, Leire, nitaz maitemintzea. Eta, zapatilak jarri, eta lagunengana joan naiz. Neskak ere han zeuden. Eta baita Leire ere.

Lagunengana zuzendu gara eta papera belarrira gauzak esaten hasi da, gero nik errepikatzeko. Hasieran ez gara oso ondo moldatu baina praktika pixka bat eta gero, hobetu dugu. Gaueko 8ak zirela, denak joan dira: orduan ni ere joan egin naiz.

Leire nire kale berean bizi denez, batera joan gara eta hitz egiten hasi gara. Edo hobeto esanda, Leire eta Papera. Azkenean, bere portalera iritsi, eta joan egin da eta irribarre egin du. Etxera nindoala mezu bat jaso dut. Leirerena. Eta hauxe jartzen zuen:

“Kaixo Xabi,

Elkartuko gara bihar, zinemara joateko, gaur oso ondo pasa dut zurekin eta.

Muxuak, Leire”

Bihar beste egun bat izango da, eta ea zer gertatzen den, bihar idatziko dut.

Ipuinak

*Laugarren taldea
2. saria*



Jone Ibarra

Denbora-makina

Bakuzaga 14

Denbora-makina

Baziren behin, Jon eta June izeneko bi anai-arreba. Joni asko gustatzen zitzaizkion makina bitxi eta erabilgarriak egitea eta Junek probatzen zituen.

Egun batean Joni denbora-makina bat egitea bururatu zitzaion eta June-rengana joan zen bururatu zitzaiona kontatzera. June hori entzutean horrela erantzun zion:

–Nola egin behar duzu denboraren makina bat!!! Zu txoratuta zaude!!!

Baina hobeto pentsatuz esan zion bere buruari:

–Jonek gauza oso harrigarriak egin ditu. Beraz zergatik ezingo zuen denboraren makina bat egin?

Azkenean June baietza eman zion Joni eta esan zion denbora-makina bat egiten bazuen berarekin joango zela antzinako beste garai batzuetara: Neolito, Paleolito, Metal-aroa, Antzinaroa edo beste aro batzuetara.

Jon hori entzundakoan korrika baten joan zen bere lantegira plano pila bat egitera. Egunak pasa zituen laborategian sartuta. Azkenean lan pila hori bukatu eta gero, nekatuta baina oso pozik gelditu zen.

Korrika batean Junerengana abiatu zen. June egongelan zegoen Laika txakurrarekin jolasten.

Jon builaka sartu zen eta June eta Laikak susto ederra hartu zuten. Jon berehala hasi zen esaten denbora-makinako planoak egiten bukatu zuela eta hori esatean hirurak pozez saltoka hasi ziren.

Hirurak korriketan joan ziren laborategira eta June oso harrituta gelditu zen Jonen lanarekin.

Junek ezin zuen gehiago itxaron, denbora-makina probatzeko irrikatzen zegoen.

Hilabete osoa igaro zuten makina prestatzen baina azkenean lehen probak egiteko eguna iritsi zen.

Jon eta June oso urduri zeuden. Goizeko 6:00etarako jaikita zeuden baina probak 8:00etan hasiko zirela adostu zuten.

Hasieran oso urduri zeuden baina pixkanaka lasaitzen joan ziren. Ez zekiten oso ziur nora eramango zituen denbora-makinak ezta noiz itzuliko ziren ere baina oso ondo pasatuko zutela espero zuten.

Jonek makina martxan jarri zuen eta minutu pare bat pasatu eta gero beste aro batean agertu ziren. Begiak zabaldu zituztenean Paleolito garaian zeudela ohartu ziren, kobazulo bat, erreka bat, hildako animaliak, jendea ehizatzen, jendea arrantzan, fruituak biltzen... ikusi zuten. Eurei begiratu eta larruzko arropekin zeudela konturatu ziren, aro hartako jendea bezala.

June beste emakumeak bezala, tresnak hartu eta fruituak biltzera joan zen. Jon bestalde, lantza bat hartu eta animaliak ehizatzen joan zen.

Gaua heldu zenean, kobazuloaren sarreran sua egin eta bildutako fruituak, jasotako arrainak eta ehizatutako animaliak jaten hasi ziren. Jon eta June asko dibertitzen ari ziren baina bat-batean denbora-makinan zeudela konturatu ziren eta minutu bat argi gabe egon ondoren Neolito garaira bidaiatu zutela konturatu ziren.

Oraingoan han zeuden, etxolekin, nekazaritzako lurraldeekin, etxekotutako animaliekin, haziekin, ontziekin... Lihoez egindako arropekin jantzita zeudela ohartu ziren garai hartako pertsonak bezala.

Garai hartan ere, Jon aitzurra hartu eta nekazaritzako lanak egitera joan zen. June ordea haziak landatzen aritu zen hango beste emakumeak bezala.

Gauean, egunean jasotako janaria afaldu ostean, lotara joan ziren, bakoitza bere etxolara. Gau hartan Junek esan zion:

–Jon, eskerrik asko makina hau sortzeagatik. Oso pozik nago eta era honetan asko ikasten nabil historian zehar gertatutakoari buruz.

Jon ere oso pozik gelditu zen Juneren hitzak entzutean.

Hurrengo egunean ere, aurreko egunean gertatutako gauza bera pasa zitzaien. Konturatu zirenerako denbora-makinan zeuden.....

Eta berriz konturatu zirenean Metal Arora iritsi ziren. Han zeudela, jendea metala lantzen, animaliak kontrolatzen, beste batzuk nekazaritzan...

Aro hartan larruzko jantziak zituzten. June oso harrituta gelditu zen ez zuelako emakumerik ikusten. Gizon zahar bat beraingana hurbildu zen eta harrituta gelditu zen June kalean ikustean. Bakoitzak bete behar zituen eginbeharrak esplikatu eta honela, June etxe batera eraman zuen eta han arropak egiten jarri zuen. Joni ordea metala nola landu erakutsi zion. Junek nahiago zituen aurreko bi aroetan jarri zizkioten lanak baina beste lan mota batzuk ezagutu behar zituela ere pentsatu zuen.

Hurrengo egunean berriz ere berdin... konturatu gabe denbora-makinan zeuden. Ea orain ze aro tokatuko zitzaien galdetzen hasi ziren baina konturatu orduko antzinaroko erromatar zibilizazioan zeuden toga eta sandaliek in jantzita.

Joni asko gustatu zitzaion nekazaritzan lan egitea; horregatik aitzurra hartu eta hango lurraldeetara joan zen, June ordea koloretako teselekin mo-saikoak egitera joan zen lurra edertzeko.

Eguna bukatu zenean denetik jan zuten: ogia, gazta... eta baita ardo pixka bat edan ere. June oso pozik zegoen Jonek denboraren makina eraiki zuelako.

Pasatako egunak komentatzen ziharduten bitartean, bat-batean denbora-makinan agertu ziren. Oraingoan Erdi aroa tokatuko zitzaieiela pentsatzen zuten baina halako batean txakur bat zaunka hasi zitzaien... Laika zen!!!

Oraingoan ere oso pozik jarri ziren hirurak, berriz ere bere arora itzuli baitziren.

Gauean, Junek gogo haundia zuen hurrengo egunean ikastolara joateko eta lagun guztiei bere abenturak kontatzeko. Gauean loak hartzeko zeudela honela esan zion Junek Joni:

–Ez dakit nola eskertu eskaini didazun bidaia eta esperientziagatik. Bizitzan gertatu zaidan abentura politena izan da, eskerrik asko Jon.

Junek oso pozik eta alai hau erantzun zion:

–Ez didazu eskertu behar, bidaia hau ez zen berdina izango zu etorri ez bazina, eskerrik asko June.

Eta biak loak hartu zituen.

Gau hartan Jon bere hurrengo makina nolakoa izango zen buruari bueltak ematen hasi zitzaion...

Ipuinak

Laugarren taldea
3. saria



Ahazne Soto

Amestutako abentura

Bakuzaga 14

Amestutako abentura

Bazen behin, Mikel izeneko 14 urteko mutil abenturazale eta ausart bat. Mikel, herri txiki batean bizi zen eta ez zitzaion bere herritik irtetea gustatzen, bertan aurkitu gabeko mendi eta lur berriak zeudela esaten zuelako. Berak, bisi-tatu nahi zuen leku bakarra Australia zen, asko gustatzen zitzaiolako kanguruak bere habitat naturalean ikustea.

Mikelek beldur bakar bat zuen, ez zitzaion ezer gustatzen hegazkinean hegan egitea, ez zuen inoiz egin eta ez zuen intentziorik hori egiteko.

Egun normal batean, beti bezala, Mikel bere herriko ikastolara joan zen eta bertatik etxera bueltatzerakoan, bere gurasoak arraro ikusi zituen, lehenengo, bazkaltzerakoan ez zuten ezertxo ere esan eta bere amak aurpegi oso arraroa zuen. Azkenean Mikelek zer gertatzen zitzaien galdetu zien eta haiek egia kontatu zioten:

–Badakigu ez zaizula ezer gustatuko esan behar dizuguna, baina zure aitak eta nik, gogo handia geneukan eta kanariar uhartetarako bidai bat hartzea erabaki dugu.

Mikel, bere amak hori esaterakoan, erreflexionatzen gelditu zen zenbait segundoz eta bertara joateko hegazkina hartu behar zela konturatu zenean hau esan zien bere gurasoei:

–Nolaaa? Baina zuek badakizue zelako beldurra diedan nik hegazkinei! Nola egin ahal didazue hau?

–Badakigu beldurra diozula hegazkinean ibiltzeari eta horregatik geunden hain urduri, baina familian ondo pasatzeko eta zuk zeure beldurrari aurre egiteko ezinbestekoa zela hau egitea erabaki dugu.

Egunak joan egunak etorri, asko erreflexionatu ondoren, onena hegazkinean bidaiatzea izango zela pentsatu zuen, bere beldurrari aurre egiteko.

Egun hori heldu zenean, Mikelek, ez zuen lorik egin oso urduri zegoelako. Goizean, ez zuen ezertxo gosaldtu, ez baitzuen goserik.

Aireportuan, maletak fakturatzen zihardutenean, bere aitari komunera joateko beharra zuela esan eta bertara joan zen. Komunean, garbitzaile zahar eta lagungarri bat ikusi zuen, berak ondo zegoen galdetu zion Mikeli, ez zitzaion aurpegi ona ikusten eta. Mikelek ondo zegoela esan eta komunitetik irten zen.

Aireportuan zenbait ordu pasa ondoren, bere amak, azkenik, hegazkinera igotzeko ordua zela esan zion.

Mikelek baietz esan eta aurrera egin zuen. Nahiko trankil egon zen hegazkinaren motorra entzun zuen arte. Momentu horretan bere amari eskua eman zion eta uste baino lehenago airean zeuden.

Bat-batean hegazkina mugitzen hasi eta Mikelek begiak itxi zituen. Zabal-tzerakoan, alde batera eta bestera begiratu eta ura, harea eta zenbait palmera ikusi zituen. Ez zegoen inor, bakarrik zegoen eta beldur handia sentitu zuen. Bere buruari zenbait galdera egiten zion: Non nago? Bakarrik al nago? Nola heldu naiz uharte honetara? Nire gurasoak?... Negargura sartu zitzaion, baina ez zuen negarrik egin behar, orduan lurretik altxa eta uharte barnera sartzea erabaki zuen.

Uharte barnera sartzen zein heinean, non demontre zegoen galdetzen zion bere buruari. Bat-batean, soinu arraro bat entzun zuen bere atzealdean eta buelta ematerakoan, gizon bat zela konturatu zen, ez zeraman ia arroparik eta hizkuntza oso arraroan hitz egiten zuen. Mikelek urduri begiratu eta eskua-ekin agurtu zuen, berak, Mikel eskutik hartu eta bere etxera eraman zuen. Etxea, hostoz eta zuhaitzen arramez eginda zegoen. Bere emazteak euskaraz zekin eta bertara nola heldu zen galdetu zion, eta Mikelek hau erantzun zion:

–Ez dakit, ni nire gurasoekin hegazkinean nengoen eta derrepentean hemen agertu naiz.

–Bueno, ba gurekin gelditu zure gurasoak etorri arte –esan zion emakumeak.

Mikelek, beldur pixka bat zuen baina erabaki zuen onena bertan gaua pasatzea izango zela.

Goizean goiz, gizonak esnatu eta janari bila joan behar zirela esan zion, Mikel, ohe bat bezalakoa zen lekutik altxa eta gizonari segitu zion.

Lehenengo tranpa batzuk ikustera joan ziren eta tranpa batean, unxi bezalakoa bat harrapaturik zegoela ikusi zutenean, gizonak korrika egin eta animalia hartu zuen. Ondoren, Mikeli animalia hori eman zion eta zuhaitz batera igo zen. Bertatik jaisterakoan, zenbait fruta zituela ikusi zuen.

Ettxera bueltatzerakoan, gizonaren emazteak untxia hartu eta lapiko batean sartu zuen, gero, frutak txikitzen hasi zen.

Bazkaltzeko orduan, emakumeak zer moduz sentitzen zen galdetu zion eta Mikelek honela erantzun zion:

–Asko eskertzen dizuet zuei hemen leku bat egiteagatik, baina asko botatzen ditut faltan nire gurasoak, nire lagunak...

–Ulertzen dizut mutil, baina ez dakit zer egin ahal dugun zuri laguntzeko –esan zion emakumeak.

–Badakit, gainera zuek ezagutu ez bazintuztet, oraintxe bertan gosez hilda egongo nintzateke.

Emakumeak, bere gizonari Mikelek esan zuena itzuli zion eta gizonak, irribarre egin zion Mikeli.

Hurrengo egunean, gauza bera egin zuten, baina aldi honetan, nahi gabe gizonari fruta atal bat jausi zitzaion eta Mikel jo zuen buruan.

Mikelek konortea galdu zuen eta lurrera jausi zen. Handik, denbora batera, esnatu eta hegazkinean zegoela ikusi zuen.

–Esnatu zara azkenean, heldu gara Kanarian uharteetara –esan zion bere amak.

Mikelek, harriturik, irribarre egin zion eta dena amets bat izan zela konturatu eta beldurrari aurre egin ziola konturatu zen.

Ipuinak

Bosgarren taldea
1. saria



Mikel Babiano

Bergarako azula

Bakuzaga 14

Bergarako azula

**Als das Kind Kind war,
war es die Zeit der folgenden Fragen:
Warum bin ich ich und warum nicht du?
Warum bin ich hier und warum nicht dort?
Wann begann die Zeit und wo endet der Raum?
Ist das Leben unter der Sonne nicht bloß ein Traum?**

Peter Handke, *Lied Vom Kindsein*

Umea ume zenean
honako galderen garaia zen:
Zergatik naiz ni eta zergatik ez zu?
Zergatik nago hemen eta zergatik ez hor?
Noiz hasi zen denbora eta non bukatzen da espazioa?
Ez ote da eguzkipeko bizitza amets hutsa ez besterik?

Peter Handke, *Lied Vom Kindsein*

2014ko ekainaren 9an bostehun urte beteko nituzke. Herriko zaharrenetarikoa naiz eta inor gutxik ezagutzen nau. Alferrik bilatuko nauzu bergararren ahotan, alferrik udaletxeko turismo-bulegoan zein “Bergara Monumentala” mapetan. Ez dut izenik. Ez dut teilaturik. Ez dut aterik. Harrizko eskeletoa naiz, zabor hutsa, baina nire hormek zutik diraute eta ez da oraino, haizea nire gorputzeko zirrikituetan barrena mintzo denean, nire ahotsa isildu duenik. Isilduko duenik. Hainbeste dira kontatu gabeko istorioak!

Oilarraren kukurrukuak iratzarri zuen Petra. Presaka altxatu eta igandee-tan erabili ohi zuen amantal zuria jantzi zuen. Berandu zebilen. Sukaldera abiatu zen, ordurako denak bertan topatuko zituelakoan, eta atea irekitzeaz ba-tera ohartu zen ezetz, han inor ez zegoela. Lasaituta, sakon hartu zuen arnasa. *Hau bai bitxia*, pentsatu zuen berehalakoan, *goizegi izango ote da?* Eguzkiari begiratu zion, leihoaz bestaldean poliki-poliki zeruan gora, eta oilarrak, haren zalantzak uxatu nahian bezala, bigarren aldiz kukurruku egin zuen. *Non ote daude Dorotea eta Magdalena? Eta Estebana?* Gosaria prestatzen hasi zen, la-ranja-ura eta arrautza egosiak eta fruta eta gazta, eta kafeak bor-bor egin zue-nerako prest zuen jangelako mahai handia, zilarrezko koilaratxoak ahaztu gabe, dukesa andreak gustatzen zaion bezala. *Egun zoragarria dator*, pentsatu zuen, zetazko gortinetan behera labaintzen zen eguzki-izpi lotsatiari begira. *Non ote daude guztiak?* Bere txokoan jarri eta zain geratu zen. Bi eguzki-izpi. *Hemen zerbait falta da...* Zer ote? Hiru eguzki-izpi. *Egin dezatela besteek nahi dutena, ez dut nik nagusiekin sesiorik nahi. Hemen zerbait falta da...* Lau eguzki-izpi. *Bitxia da duke jauna atzeratu izana, oso goiz jaikitzen da igan-deetan.* Bost eguzki-izpi. *Kafea hozten ari da...* Sei eguzki-izpi. *Berriro berotu beharko dut...* Zer ote? Eguzki-izpiak jangelako txoko guztietara barreiatzen ziren, jostari, San Pedro eta Santa Marina elizetako kanpaiak dilin-dalan hasi zirenean. 08:00ak. Petra harritu egin zen, horma-erlojuaren hotsik entzun ez zuelako, eta erlojuari erreparatu zion, baina han ez zegoen haren arrastorik. Or-dura arte egurrezko erlojua egona zen lekuan hutsune handi bat besterik ez zuen antzeman. Mahai handiari erreparatu zion, haren inguruan izara zuriz estalita zeuden aulkiei. *Hau bai bitxia...* Orduantxe ohartu zen jangelako lan-

para handia, kristalezko armiarma eder hura, falta zela. *Ez da posible...* Be-saulkiak eta armairuak izara zuriz estalita, hormak hutsik, koadro eta ispilurik ez. Txoko batean egon ohi zen portzelanazko ontziteriaren arrastorik ere ez. Orduantxe gogoratu zen duke jaunak egun pare bat lehenago esandakoa-rekin eta izutu egin zen, *ez da posible, ez da posible...* eta jauregiko eskaile-retan gora abiatu zen eta logela guztiak banan-banan miatu zituen, baina ez zuen inortxo ere topatu. *Ez da posible*, jangelara itzuli zen, asaldatuta, *eta Felipe? Non da nire Felipe?* Dukesa andrea eseri ohi zen eserlekuan jarrita ez-painetara eraman zuen kikara txikia. *Non da nire Felipe?* Kafearen hotza bere malko gaziekin nahastu zen.

Gauetz, zure logelako argia nire begi gotikoetan islatzen denean eta Deba ibaiaren zurrumurrua besterik aditzen ez duzunean, negar egin nahi nuke. Bakardadea uxatzeko. Ezagutzen nauzula sentitzeko. Noizbait izan nintzela sentitzeko. Nahi nuke. Baina ez dakit nola. Zure eskuak logelako argia itzal-tzen du eta *bukatu da* xuxurlatzen diot orduan ilargiari. Egun bat gehiago. Edo gutxiago.

Amesgaiztorik gaizto eta ilunenetan ere ez zuen Petrak horrelakorik iru-dikatuko. Desagertuak ziren guzti-guztiak. Egun batetik bestera. Auzoko ba-tek esan zion Madril aldera jo zutela gerratik ihesi, eta Petrak ez zuen, artean, sinetsi nahi izan. Jauregiko isiltasunak eta bakardadeak bestela sinestera de-rrigortu zuten arte. *Nola da posible? Nola...* Bost urte lehenago, 1833an, Na-farroako herri txiki batean utzi zituen bere seme-alabak eta Bergarara etorri zen lan bila. Zortea izan zuen eta dukesa andrearen inude edo aña hasi zen beha-rrean, Felipe txikia hezi eta jauregian zerbitzatzen aritu zen, ederki aritu ere, duke jaunaren hitzetan. Orduan... *Ahaztu egin ote naute?* Duela gutxi, Nafa-rron bere seme-alabak bisitatu zituenean, nekez ezagutu zuten umeek. Or-dutik, lotsa ematen dio haiekin dagoenean beren amatxo dela esatea, eta las-ter utzi zion, lotsaren lotsaz, jaioterrira joateari. Felipe bera ere, seme-alabak bezainbeste maite duena, kendu egin diote. Kendu. Betiko.

Petrak negar egin zuen eta jauregian gustukoen zuen txokoan babestu zen, dukesaren logelan. *Dukesa andrea ez da itzuliko eta itzuliko balitz ere bost axola* esaten zion bere buruari. Logela hau maite zuen, sabai urdin-urdina zuelako eta sabai urdin-urdinean izar horiak nabarmentzen zirelako. Bergarako kaleetan gerra oihuak besterik aditzen ez ziren garai hartan.

Goseak eta izurriteak hondamendia ekarri zuten, zeru beltzek eta euri ja-sek Bergarako errotak suntsitu zituzten, ogirik ere ez zen. Egoera latz hartan, jauregiko sukaldean topatu ahal izan zuena janez eta logelan biziz igarotzen zituen emakume gazteak gauak eta egunak, sabaiko zeru urdinari eta noiz-bait beteko ziren ametsei so. Bertan babestu zen kanpoko eta barneko gerretatik, desesperaziotik eta iluntasunetik. Aste gutxiren buruan, atsekabez edo bestelako gaitzen batez larriki gaixotu zen arte. Errege Seminario zahar-rean kokatutako ospitalera jo zuen orduan. Atsekabeak atsekabe, Petrak ez zuen hil nahi.

Hurrengo astean botako nauzu, eta orduan desagertuko da nire azken arrastoa. Orduan emango dut azken hatsa. Bien bitartean, Bergararen eta zu bezalako bergararren lekuko isila izaten jarraituko dute horma puskatu eta zaharrok. Hainbeste, hainbeste dira azken mendeotan ikusi ditudanak eta kontatu nahi dizkizudanak, kontatu behar dizkizudanak, kontatu ezean betiko desagertuko direnak. Ez nauzu isilaraziko.

1839ko abuztuaren amaieran besarkatu zuten elkar Maroto karlistak eta Espartero isabeldarrak. Gora foruak! Gora Maroto! Gora Espartero! Herria pozez zoratzen zegoen, eta besarkada hura itxaropenaren eta garai baketsu bezain oparoaren hasieratzat zuten gehientsuenek. Baita Petrak berak ere. *Bukatu da gerra, itzuliko al da orain nire Felipe?* Noraezean, bakarrik, umezurtz, besarkadaren urteurrenaren karira handikiek 1840an Ozaeta jauregiaren inguruan antolatu zituzten festa eta ekitaldietan izan zen. Brokel-dantza eta antzerkia, bertsoak, su artifizialak, Hiruak bat, hitzaldiak eta banketea... Hura zen jai giro ederra! Ez zuten, baina, haiek guztiek Petra alaitu, eta bere logela urdinera itzuli zen, sabai urdineko izarrei begira amets egiteko.

Badirudi bi mundutan banatuta zegoela emakume gaztearen bizitza: barneko mundua, zeru urdineko logelaren lau paretetara mugatzen zena, eta kanpoko mundua edo logelaz landakoa. Bertan zegoenean babestuta sentitzen zen, sabaiko izarrek arnasa hartzeko eta bizitzen jarraitzeko indarra ematen ziotela jakingo balu bezala. Aitzitik, kanpoko mundua beldurgarria zen, mina egin nahi zioten izakiz eta gertakariz beterikoa. Hortaz, jauregitik eta logelatik premiazkoa zenean besterik ez zen irteten, eta han igarotzen zuen eguna, ohean buruz gora etzanda, Feliperekin ametsetan.

Jango bazuen dirua behar, eta oihalgintzan hasi zen lanean. 1846an, José Julián Blanc, Frois eta Silvak San Antonio inguru horretan “Fábrica de Hilados y Tejidos de Vergara” sortu zutenean, bertan aritu zen kotoi eta negar malko artean etorkizuneko jantzi dotoreen oihalak mozten. Urte batzuk geroago, 1853ko goiz lanbrotsu batean, fabrikako kimikari alemanak berarekin hitz egin nahi zuela esan zioten, eta haren bulegora joan zen, urduri, gure Petra.

— Me han dicho que es Usted una trabajadora muy fina —esan zion Robert Müller gizon gazte eta bizardunak azentu bitxi samarrean—. Nuestro negocio de mahones va en aumento y necesitamos a gente como Usted en la tintorería. Le pagaremos dos reales más por cada día de labor. ¿Qué me dice?

Zorionez, Petra nahiko ondo moldatzen zen gaztelaniaz, hori baitzen behinola dukesa andreak Felipe semea hezteko jarri zion baldintza bakarra. Ez zion Müller jaunaren eskaintzari muzin egin, eta laster ohitu zen lan berrira. Egiteko neketsua, tindategiaren kirats sarkorra, aparteko orduak, baina sosak sos! Gainera, maiz hitz egin behar izaten zuen Müller jaunarekin, eta atsegin zitzaion jaun alemana. Baita Petra jaun alemanari ere, udazkeneko egun batean bere etxera gonbidatu baitzuen txokolate beroa hartzera. *Zer eta txokolatea*, pentsatu zuen neska langileak, maiz zerbitzatua zion jauregian dukesa andreari, baina berak ez zuen ordura arte sekula dastatu. Horrela, poliki-poliki, adiskidetasuna jaio zen, lore hauskor bat negu hotzean nola, Müller jaunaren eta Petraren artean, eta alemanak esan zion zerbitzari bila zebilela eta ez ote zuen bere etxean lan egin nahiko. Baietz, noski. Horrela piztu zen, poliki-poliki, maitasunaren garra bien artean.

Noiz edo noiz, nire inguruko jauregiei erreparatzen diet. Bertan jarraitzen dute batzuek, aspaldi bota zenituen beste batzuk. Badago museo bihurtu duzunik, baita egun jatetxea denik ere. Pozik solastuko nintzateke haiekin. Zoritxarrez edo zorionez, hizkuntza ezberdinak mintzo ditugu. Jauregi moderno eta dotoreak dira haiek, iraganaren arrasto zaharkitua ni, zabor urbanistikoa, behingoz garbitu beharreko orbana, ezabatu beharrekoa, bota beharrekoa. Garapenaren prezioa omen.

Petrak eta Robertek galdera asko egiten zizkieten elkarri. Zergatik? Non? Noiz? Eta ikusi zuten oso antzekoak zirela, ume txiki erratu bi, bihotz barkartien jabe, ezinezko ametsen morroi, eta ulertu zuten libre zirela zirena izateko, libre jolas berriari ekiteko, libre Robert eta Petra, Petra eta Robert irabazle izango zituen jolas berriari behingoz ekiteko. Azkenean elkar topatu zuten-eta.

Udako arratsalde batean, lantegitik irten bezain laster, emakumeak gizonari irribarrez esan zion zerbait erakutsi nahi ziola, eta dukesaren jauregira eramane zuen eta zeru urdineko logela erakutsi zion.

— Mira, aquí he vivido hasta ahora —esan zion Petrak alemanari.

— ¿Aquí? —erantzun zion Robertek, harrituta, sabai urdina seinalatuz—. Entonces eres un ángel.

1854ko udaberrian ezkondu ziren. Petrak lantegiko lana utzi zuen eta alemanaren etxera joan zen bizitzera. Hark hainbeste maite zuen bere emaztea, non zin egin baitzion kotoi-lantegiko oihaletan tindatzeko urdin berezi-berezia asmatuko zuela. Esan eta egin. Petrak kolore hura ikusi zuenean esan omen zion senarrari:

— Es como el azul de mi cuarto.

— Es el azul de tu cuarto —xuxurlatu zion Robertek goxo-goxo belarrira.

Kimikariak ez zion sekula inori kontatu asmatutako urdinaren formula sekretua, ezta Petrari berari ere. *Es un secreto, un secreto*, esaten zion, batzuetan, irribarrez. Alferrik saiatu ziren munduko lantegi guztiak kolorea errepikatzen. Hain zen berezia eta errepikaezina, Petraren eta Roberten arteko

maitasuna bezalakoa. Urte batzuk geroago, senar-emazteak Berlinera joan ziren bizitzera. Esaten dutenez, etxetxo bat erosi zuten hegoaldeko auzo batean, Zehlendorfen, eta oso zoriontsuak izan ziren urte luzez. Ez zuten seme-alabarik izan. Udako asteburuetan Schlachtensee lakuaren inguruan paseatzea gustatzen zitzaien eta belarretan etzaten ziren, barreka, biluzik, jostari, zeru urdinari begira-begira.

Bergarako zaharrenetarikoa naiz eta ikusgarria izan nintzen, zinez. Kanpoaldeko gain batean egonagatik, zoragarriak izan ziren nire lorategiak, alaiak bertako iturrien murmurio naroak. Non ote daude haizearen hitzak? Lagun asko jaio eta bizi izan dira nire harrizko horma sendoen artean: printzeak, dukeak eta gotzainak, baita neskameak, inudeak eta zerbitzariak ere. Guzti-guztiei zor dizkiet izena eta izana. Haiek niri bezainbeste. Nire gela urdinetan babestu ziren, nire sekretuak ezagutu zituzten, nire erraiak. Begira nazazu orain. Sasiak irentsitako harri pila besterik ez naiz. Zuk ez nauzu eza-gutzen.

Ezustean hil zen Robert, txokolate zaporeko arratsalde batean. Negar egin zuen Müller andreak eta seme-alabak eta Felipe ekarri zituen gogora. Bere mina egunetik egunera handituz joan zen, puztuz eta puztuz, eta bihotzean pilatu zitzaion. Ez zeukan kontsolatuko zuen logelarik, ezta sabai izar-tsuri ere. Berlingo zeruaren urdinak mina areagotu besterik ez zion egiten, senar ohia, haren lana eta elkarrekin igaro zituzten urte zoriontsuak gogorarazten zizkiolako. Horregatik, etxean preso igarotzen zituen asteak eta asteak, eta zeru urdinik ez zegoen egunetan besterik ez zen kalera irtengo. Erre-summerik eta hegorik gabeko aingerua, andreari Bergarara itzultzea ere bururatu zitzaion. Haatik, algodonerako adiskide zahar baten bidez jakin zuen gerra piztu zela, oster, euskal lurretan, eta karlistek liberalak hiltzen zituztela, liberalek karlistak bezainbeste. *Jainkoarren! Kexu zitzaion bere buruari, noiz bukatuko ote dira gerra hilgarriok? Non ote daude giza duintasuna eta bakea? Non 1839an Esparterok eta Marotok sinatu zuten agiria? Non haien arteko besarkadaren omenez urtebete geroago eraiki zuten oroi-*

tarria? Egun gris eta euritsuenetan, Tiergarten parkeko baso ospelenetara jotzen zen paseatzera, bertako itzalekin nahastuko zelakoan. Maiz jotzen zuen bertatik Reichstag edo parlamenturaino, eta prusiarrek 1874an leku hartan eraiki zuten garaipen-zutabe luzeari erreparatzen zion. Austriarren zein frantziarren aurkako garaipenen oroigarri eraiki zuten, eta goi-goian diz-diz egiten zuen garaipenaren urrezko aingeruak.

Erraldoia zen, eta bi hego zituen, zeru alderantz zabalik. Ez zuen, ordea, hegan egiten, eta ezkerreko hanka eskuinekoa baino apur bat aurreratuxeago zuen, lurretik ibiltzera kondenatuta bailegoen. Zertarako nahiko zituen hegoak lurrari itsatsita bizi den aingeruak? Lantza bati eusten zion ezkerreko eskuaz, ereinotzezko koroa zuen eskuinekoan. Irribarrerik ez urrezko ahoan. Are gehiago, irudi luke triste zegoela, garaile, eta bakar-bakarrik, hain bakarrik, zutabearen goren-gorenean. Egun euritsuetan andre gris baten bisita izaten zuen, eta negar egiten zuten batak besteari begira.

1881eko uztailaren 2an hil zen Müller andrea, bihotzeko gaixotasun luze baten ondoren, Berlingo erietxe nagusian. Esaten dutenez, zeru azul-azula zegoen egun hartan.

Berezia zarela uste duzu. Ez dagoela munduan zu bezalakorik. Eta arrazoia izango duzu. Ez ahaztu, ordea, nire istorioa zurea ere badela. Tik-tak, tik-tak, denborak aurrera darrai. Nire historia zurea ere badela. Denborak higitzen ditu mendi sakratuak, desagiten jauregi zaharretako horma miresgarriak, hauts bihurtzen hilerriko hezur zuriak. Urte batzuk gorabehera, oso antzekoak dira zure patua eta nirea. Ez dago gurean betierekoa denik. Aise desagertzen dira kotoi lantegiak, jauregiak, pertsonen bizitza zoriontsu zein tristetak. Aise irensten ditu denborak sekula ezagutuko ez dituzun historiak. Asegaitza da Saturno. Tik-tak, tik-tak. Ahaztu dituzu gerrak eta besarkadak. Ez ahaztu, ordea, nire historia zurea ere badela, ni hiltzean zeu ere apurtxo bat hilko zarela. Zer dakizu niri buruz? Zer zuri buruz?

Ipuinak

Bosgarren taldea
2. saria



Ana Monux

Hariak

Bakuzaga 14

Hariak

I

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, mahai gainean esne edalontzia zain dudala. Hurrengo eguna indartsu hasi nahi badut behintzat, iluntzetako erritual hau premiazkoa bihurtu da. Ez dut telebistarik pizten, ordu honetarako buruko mina bisitan baitatorkit. Soilik esneak berotu nazan utzi eta isiltasunean lasaitu, mututasunaren dirdiraz gozatzen.

Uste baino lehenago iritsi da oihua; hauskorra bezain puskatzailea.

— Isabeeeeel ! Isabeeeeel!

Ama da, bere gorputz zaharkitutik deika. Egun hauetako batean asfixiatu egingo nauen beldur naiz, bere esku propioekin ito. Geroz eta estuago heltzen nau, arnasteko beta txikiagoa emanez.

Pentsamenduen gordintasuna uxatu eta ziztu bizian abiatu naiz bere gelara. Pixagura dauka. Pixoihala darama beti jantzita baina ohartzen denetan behintzat, ez du atsegin bertan isurtzea. Gogorra behar du horrek. Bere eskua nire lepo gainetik inguratu eta indarrez eutsi dut komunera bidean. Jada ez dit inongo emoziorik eragiten, baina primeran oroitzen dut lehenbizikoz komunera lagundu nion eguna. Ez berak eta ez nik ez genekien lotsa non ezkutatatu eta begiradak salatzen gintuen; gure aurpegi nahiz gorpuzkeran naturaltasun apur bat ere antzeman ezinik. Ez dugu inoiz hartaz hitz egin, dependentzia islatzen hasi zeneko egunez. Nik behintzat gau ugari eman ni-

tuen iratzarrita, emakume hura nor zen ezin asmatu. Nire ama zela ezin sine-tsita. Ordu arte 7 urte zeramatzan amak gurekin bizitzen, aita hil zenetik; baina pertsona independentea izan zen urte guzti haietan zehar. Aitaren heriotzak lur jota utzi zuen eta etxeko bat gehiago bezala hartu genuen gurean. Bere kabuz moldatzeko gaitasunak galtzen ari den heinean, berarekiko ditudan emozioak konplexuagoak bilakatzen ari dira. Eztanda egingo dudala sentitzen dudanetan, nire logelara joan, almoada hartu eta ahoari estu lotuta ozen garrasi egiten dut. Ozen baina mutu. Emakume on batek behar duen bezala.

Txiza egin ostean irribarre txiki bat bota dit, eskerrak eman nahian edo. Nik bortxaz erantzun diot. Horrelakoetan nire burua biziki gorrotatzen dut, era mingarrian.

II

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, zigarroa pizten dudan bitartean. Gaur ere kirats zikin horrekin etorri behar, bizi gogorik gabekoen piura tamalgarriarekin! Igogailua entzuten dudan bakoi-tzean eskuak gogor ixten ditut, bekokia zimurto eta patua edo dena delako-ari erregutzen diot bera izan ez dadin; umeak lotaratu arte ez behintzat. Berari ordea bost axola zaio, jada ez du hori ere zaintzen; gupidagabe irekitzen du etxeko atea, gupidagabe sartzen da sukaldean balantzaka eta gupidagabe hurbiltzen zaie muxu ematera. Eta haiek ezin masaila aldendu, ezin pikutara bidali. Nik berriz, hamaika aldiz esan dut alde egingo nuela. Lapurreta ez nuela inoiz jasango. Ez niola barkatuko umeen aurrean ebidentzia plazaratzea. Oihu ozen egingo balit, momentuan bertan maleta egin eta joan egingo ginela. Eta beste hamaika aldiz eman diot azken aukera, barkamen eternoa. Gorrotatzen dudan beste maitatzen dut.

III

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, us-tez guztiak lotara joan direnean. Sofan esertzeaz nagoela, okada baten soinuak asaldatu dit barrua eta lasterka abiatu naiz komun txikirantz. Han dago berriz

ere; lurrean makurtuta, burua komuneko zuloan sartuta eta ahotik adurra dariola.

— Ez, berriz ez Ainhoa! Duela ordu eta erdi bukatu dugu afaltzen; ondo egi-ten ari zinen!

Okadek ez diote hitz egiten ere uzten eta zurbil-zurbil begiratzen nau.

— Ainhoa, esan zerbait! Ze ostiatan ari zara! Bi aste gaindituak zenituen jada...— garrasi egiten diot nire mina nola adierazi ez dakidala.

— Barkatu ama.

— Niri ez... zenbat aldiz esan behar dizut niri ez didazula barkamenik zor. Zure bizia da zulotik behera isurtzen ari zarena, ez nirea!

— Eta zer daukat galtzeko ba? Okaz kanporatzeko gehiegi eta galtzeko ezer ez daukat ama. Ez al duzu ulertzen beharraren beharrez egiten dudala?! Mi-naren minez...

— Batzuetan, zure ondoan eseri eta zuloa konpartitzeko gogoa sartzen zait; baina hori egingo banu zu bezalakoa nintzateke: makurtuta bizi de koldar bat. —eta amorrutik pentsatzen ez ditudanak jaurti ostean, nire gelara alde egin dut.

IV

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, zu lo zaudela sentitu dudanean. Eskerrak orfidalari! Nire eskua indarrez eustea baino askoz lasaigarriagoa zaizu. Zure hasperenei adi egoten naiz gauero, pilulak efektua noiz egingo dizun zain. Gehienetan hamaikagarrenaren ondoren mututzen da zure egonezina, zure barruko korapiloa. Pentsatu izan dut hanka puntetan hurbildu eta korapiloa nire kabuz askatzen saiatzea. Baina ez nuke jakingo non ukitu, ezta zer ireki ere. Burua, sabela, bihotza...zer? Ezin asmatu nondik hasi, denbora luzeegia baita ulertzen ez zaitudala... Zergatik hainbeste tristura, horrenbesteko etsipena.

Laztana, entenditzen ez bazaitut ere maite zaitut. Batzuetan errukiz, bes-tetan nostalgiaz, aspaldian pasioz hustuta; baina beti da benetakoa ene mai-tasuna. Garai batean izan zinenari leiala izaten. Izan ginenari.

V

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, pianoaren soinu goxoa hasi denean. Ez dakit zein autoreren obrak izan ohi diren, baina berdin dio, entzuten dudan oro atsegin dut. Bere musikak zoratu egiten nau, bere leuntasunak, bere behatzetatik ateratzen den soinu goxoak; bera piano aurrean imajinatzeak.

Gaur, nahi baino gutxiagotan ikusi dut. Egunero bezala ordu biak eta hamarrea atarira jaitsi naiz, elkar agurtu eta eskaileratan gora igotzen behatu dut kristalaren bestaldetik. Praka bakeroak eta txanodun jertse berdea zermatzen soinean, bere ohiko motxila zaharra sorbaldan zuela. Ondoren ogia erosi eta etxera abiatu naiz ziztu bizian, ez nuen nahi Mikel ni baino lehenago iristerik.

— Epa, zer moduz lanean?

— Ondo, nahiko goiz lasaia izan da. Eta zu, zer moduz?

— Ondo, besterik gabe —errutina mila pusketatan apurtzeko gai izan gabe, beste egun batez.

Elkarren konpainia absurdoan sartu ditugu haragi gisatu puskak ahoan. Egunetik egunera are zentzugabekoagoa bihurtuz jatordua; geroz eta azkarago murtxikatuz janaria, zama horri denbora luzez aurre ez egitearren. Bartzuetan ezta birrindu ere; ploust! barruraino. Segidan bera sofán luze etzaten da eta ni paseatzera joateko gertatzen naiz.

Hirurak laurden gutxitan Mikel agurtu eta atarian egoten naiz bera noiz etorriko zain. Etxeko atea ixten duela entzutean postontzitik eskutitzak hartzen banenbil bezala aritzen naiz, bere atzetik jarraika abiatzeko asmoz, berrogei bat metro atzetik.

— Agur Garbiñe!

— Bai, agur Ander!

Bidean asko entretenitzen ez den horietakoa da. Hain da garbia bere pau-soa eta hain xaloa bere begirada. Lagunen batekin topo egiten duenean, erakusleihoren bati begira gelditzen naiz disimulu osoz.

Ez diot ikastolako ateraino jarraitzen, bertan guraso gehiegi egoten delako, guztiak kuxkuxeatzeko irrikan. Aurreko kaleko palmondotik azken begirada bota eta etxe aldera noa berriz, bi ordu eta erdiren buruan auzoan ibiliko denaren irrikaz. Astearte eta ostegunetan ez da pianoko klaseetara joaten, eta horrek biziki arintzen du nire arratsaldea.

Gaur ez da ordea zuzenean etxera itzuli. Leihotik begira egon naiz bostetatik sei eta erdiak arte, baina alperrik; ez da ageri. Bere laguntxoak etxe azpian zebiltzan baloiarekin jolasean, eta nire buruari galdetu diot ea nik beste botako zuten faltan Ander. Buru makur abiatu naiz erosketak egitera, izozkailua hutsik zegoela ohartuta.

VI

Egongelako leihotik begira dihardut, inguruan bizitza baretu denean, kanpoaldera begiratzeak merezi duela sentitzen dudan honetan. Bost hilabete daramazkit lau pareten artean sartuta, gaizki zer egin ote dudan asmatu nahian; gasolinaz su ematen saiatzen den elurretako panpina banintzan. Baina hilabeteak pasa badira ere jada egongelako leihotik begiretzen hasi naiz; kale izkinan espontaneoki elkartzen diren aspaldiko lagunei, erosketa poltsarik gabe dabiltzan emakumeei, apaiz burusoilari edo begi-zulorik gabeko etorkinari.

Denbora luzea eraman badit ere, garrantzitsua den zerbait sinetsi dut azkenean. Gu biok aspaldi hasiak ginela herdoiltzen, eta bizitza ez dela zuria ala beltza, ez daudela onak eta txarrak, ez eta errudunak ala errugabeak.

Oso zoriontsu izan ginen garai batean, zuk inoizko barre algararik sakenak sortarazi zenizkidan eta ahaztuko ez ditudan orgasmo basatienak eragin. Batzuetan ez genuen mundua ulertzen, eta bestetan gehiegi ulertzen genuelako egiten genion aurre, konbikzioz. Gu ere baginela esanez, gurea ere benetako maitasuna zela lau haizetara oihukatuz. Gero zure amarena gertatu zen eta nik ezin izan zintudan babestu, ez zuk behar beste behintzat, eta hori leporatzen zenidan behin eta berriz, ez zintudala zaintzen, ea ze ostiatan ibili nintzen hainbeste feminismo eta txorakeriatan gero ez banekien maite ni-

tuenak zaintzen ere. Eta horrek min handia egiten zidan, saiatu arren ere ezin nuelako. Konplikatuegia bihurtu zinen niretzat, hauskorregia.

VII

Joan zara dagoeneko. Lasai hartu, zaindu, idatzi ... Oraingoan ere esan gabekoak airean utzita alde egin dugu. Alde egin diogu elkarri. Estu besar-katzen, muxuen baimen bila: masailean zuk, lepoan nik, ezpainetan azkena.

Urduri nengoen, zugandik urrundu eta sabelak buelta erdia emateko bezainbeste. Gaurkoan ere (ni) neure barruan gonbidatu sentituz. Enigmatiko, antzeman ezin, nahasita. Gu bion artean gertatu ohi den bezala.

Aitortzen dut guztia airean gelditu izanaren poza ... Hainbeste eta ezerez. Atsegin dut airean ezer gelditu ez izana. Ez nauzu itxarongo. Ez zaitut itxarongo. Ez dakit zenbatetan hitz egingo dugun, ezta ere itzultzean goxoki begiratzeko jarraituko nauzun. Nire desioen kolorea zein izango den ideiarik ez. Ez zinik, ez egi absoluturik, ez etorkizunaren bortxarik.

Agian airean uzten duguna askatasuna da. Guztia definitzeko joera basatiak zenbaitetan nahastu edo asaldatu gaitzakeen arren...

Aurreko guztia eta bere aurkakoa: Biok dakigu bueltan ere hor egongo gara. Maitasunez. Askatasunez. Bizitakoak konpartitzeko irrikaz, hazitako zentimetroak irribarreka neurtuz. Begiraden goxotasuna hala nola galtzen ez dela (elkar) gogoraraziz. Hausnartu, sentitu eta bihotzak esandakoa egin. Afrika izango bada zure bizitza gainontzean ere, errespetatu egingo zaitut. Ez dut bihotz pusketarik utziko geltokian, ez eta esperantza apurrik; marinelaren zain gelditu zen alaba banintzan.

Egonezinak umezurtz sentiarazten nauen arren, horrela izan ez dadin ikasten ari naiz. Gehiegitan disimulatzen baitugu nora eza hitz mugatu eta eskasekin. Mugatu eta eskasegiak direla ahaztu nahian edo... Ezin dugu bizitzako esentzia kontzeptuen munduan bahitzen jarraitu, ziurtasun gezurti baten koldarkeriaz.

Gaur ere ezin hitz bihurtu autobus geltokian sentitutakoa.

Ipuinak

Bosgarren taldea

3. saria



Elene EtXaniz

Lepokoa

Bakunzaia 14

Lepokoa

Euriak ez omen du bustitzen Bolognako kaleetan. Arkuperik arkupe, aterperik aterpe. Bustitzeke bezain lehor, eta lehor bezain bustitzeke trenetik jaitsi eta igo bueltan trenera.

Bizikletarik aldean eroan izan ez banu agian ez zen ezer gertatuko, nik nire bidea, zuk zurea, eta kito. Eta biok pozik. Pozik edo norbere bidean aurrera, bederen. Baina baneraman baneramanez, eta gurutzatu ziren gure bideak. Nik gutxien espero nuenean eta gutxien espero nuen moduan. Goiz hartan, Bolognako tren geltokian. Zu belauniko, ni bizikleta eskuan naroala. Zapaldu egin zintudan ustekabean. Zoria, edo destinoa.

Azoka Bolognan larunbat goizero legez. Eguna triste antzean esnatu zela konturatu ginen trenetik jaitsi orduko. Jendetza hara eta hona, argitu berri zuen arren, sargori eta zerua estalita. Abuztuko egun astun eta neketsua irail bukaeran, denbora gutxian ekaitza datorrela iragartzen duten goiz horietako bat aspaldiko partez. Airearen pisua igartzen nuen bizikleta eskuan hartuta jendartean barneratu ginenean.

Erronka berria jarri genion gure buruari larunbat hartarako kopurua zehazteko orduan eztabaida txiki bat izan ostean. Nik neuk, nagi samarra izanik, lanerako gogo gutxi neukan. Francescok bazekien, ordea, larunbat hura egun seinalatua zela negozio ona egiteko. Hileko azken larunbata potoloa izaten baita beti, are gehiago iraileko azken larunbata izanda. Haserretu egin zitzaiz-

dan Franci eskuratu beharreko gauzen inbentarioari egin nahi nizkion aldateten berri eman nionean. “Ez dakik emandako aukerak aprobetxatzen!”. Tematu zen larunbat hura profitatu behar genuela, ezin genuela aukera alferrik galtzen utzi. Ez zuen lortu ni konbentzitzerik (nagitik beste nik burugogorretik) eta etsi-etsian erdibideko kopuruak zehaztu genituen: “20 erloju, 7 urrezko eraztun, 15 koilare, 20 pultsera, 5 fular, 3 txankleta pare, 5 etxerako zapatila pare, nahi beste hozkailurako iman eta 5 sorpresa artikulu, norberaren aukeran”.

Eguerdiko ordu bietan elkartuko ginen berriz tren geltokian bertan. Birtartean, bakoitza bere beharrera. Nik Via Independenza-ren amaierako lautada aukeratu nuen, Francik aldiz parkea eta hiriaren erdigunea baliatuko zituen lanerako. Udako oporren ostean lan egiten genuen estreinako larunbata zen hura, iraila aprobetxatzen baitugu gure ofiziookook deskantsu hartzeko. Hutsik bueltatzen dira italiarren diru zorroak abuztuko oporretatik, ez dute azokan gastatzeko txakur txikirik gordetzen. Ez iraileko azken larunbata iritsi arte, bederen, eta orduan bai... orduan azken xentimoa ere erosketetarako! Zoramena izan ohi da Bolognako biztanleen artean. Goizean goizetik. Izan sargori, egin zaparrada edo bota elurtea. Jendetza postu txikien artean aurrera eta atzera salgai dauden produktuak begiratu eta aztertu, aztertu eta begiratu. Pentsatu eta azkenean erosi, batzuetan. Edo erosi ostean pentsatu, aukeran sarriegi.

Esku zetakatsu batekin heldu zenidan gogor orkatilatik bestea gorantz luzatzen zenuen bitartean, esku ahurra zabalik, eskean ari denaren moduan. Eskean ari zinen, ibili. Kosta egin zitzaidan hurrengo minutuetan listuari ez-tarrian behera bultza egitea, ahaztu egin zitzaidan nola egiten zen, mihia ere trabatu. Paralizatu. Ez zenion bizikletari begirik kendu, ez ninduzun ezagutu.

Urteak izango dira langintza honetan hasi ginela, honezkero. Behar baino gehiago luzatu zitzaizkidan zuzenbide ikasketak bukatu orduko ohartu nintzen ez zela hura nire bizitzan jarraitu nahi nuen bidea. Supermerkatuan erosketak egiten ari ginen egun batean hartu nuen erabakia, bat-batean, zerk bultzatuta egin nuen ondo jakin ez arren. Nire ikasle bizitzaren azken hondarra agortzen ari zen eta elkarrekin hiru urte luzez bizi izan ostean, pisu-kideok

behin betiko agurtzeko ganorazko afaria egingo genuela erabaki genuen. Azken errenta ordaindu berri, soberan geratutako diru apurra aldean hartu eta afari berezi hartarako erosketak egitera atera ginen. Ez zen aparteko gauzarik gertatu. Nik neroan dirua praken atzeko poltsikoan ondo gordeta, nik neroan saski gorria esku batean afaria gertatzeko produktuz gainezka, neuk neroan “Birra Moretti” litro t’erdiko botila sorta bat beste eskuan. Eta ordaintzera joan nintzenean zerbaitek klik egin zidan barruan. Hipnotizatuta bezala eskua diruzorroan sartu eta billeteroan urteak zeramatzan urrezko katea atera nuen. Lepoaren bueltan lotu nuen pisukideen begiradak harriduraz so nituela jakitun, gurutze handia paparrean zintzilik geratu zitzaidan arte. Orduan, eta inor konturatzeko astirik eman gabe, produktuak kaxako zintara atera bitartean atun pote handia larruzko txupa beltzaren azpian gorde nuen. Huraxe izan zen nire lehenengo sasi-lapurreta, monotoniazko bizimodu haren eta bizimodu berriaren arteko mugarrria.

Michelaren postuaren paretik pasatu nintzenean keinu egin nion begiarekin. Ijito azal beltzarana zeukan Michelak, begi beltz handiak, jantzi koloretsuak eta irribarrea ahoan. Atzamar luze finak, ile motx nahasia. Piano jolea behar zuen izan bere denbora librean, edo txelista bestela. Livornoko kosta usain sarkorra zerion haren azaleko poro bat eta bakoitzari, herritik alde egin arren urteen joanak ere desitsatsi ezin duen barren barrendik hedatzen den lurrin gazi gozoa. Tripan kili-kilia pizten duen aroma freskoa, gose modukoa pizten zidan zera hura. Bere aurrean disimulatzen ahalegintzen nintzen arren, bere aurrean lapurretan egiten ez nuen arren eta bere postu ingurutik agudo pasatzen saiatzen nintzen arren, ezagutzen zuen nire ofizioa. Jakitun zen lapurra nintzela. Halere, banekien ez ninduela salatuko, Michelak ez ninduke behin ere bere trapuak saltzen zituen eran salduko. Begiko ninduen ni, ez nire lana. Horregatik egiten zuen ezikusiarena, ixten zituen begiak ondo zabalik izan arren. Abokatu izateko bideari eutsi izan banio akaso gehiago maitatuko ninduen Michelak. Gehiago ez, errazago. Ez, errazago ere ez, besterik gabe, desberdin. Baina gurutzatu nuen zubia gurutzatu nuenez eta bi gauza nekizkien ia seguru: bata, esan bezala, abokatu izan banintz Michelak desberdin maitatuko ninduela, onerako zein txarrerako; eta bestea, beharbada

eta seguruenik abokatu izan banintz ez nintzela egundo Bolognako azokaraino iritsiko, ez nuela Toscanako haizea sikiera usaindu ere egingo.

Nire neuronak argiaren abiadura bera baino azkarrago ari ziren sinapsia alde batera eta sinapsia bestera, gorputza kieto ez aurrera, ez atzera. Ez nuen inoiz ulertu zergatik egin zenuen alde, ez dut sekula onartu gu abandonatu izana. Abisatu egin zenigun. "Bihar eguerdiko hamabiak aurretik etxetik alde egingo dut eta ez naiz itzuliko". Amak ez zizun azalpenik eskatu. Nik hamalau urte neuzkan, ez nizun azalpenik eskatu. Baina ez nizun bar-katu eta alde egin aurretik dutxan zeundela urrezko lepokoa ostu nizun. Agudo egin nuen korri karrikara, konturatuko zinen beldurrez, zu atetik bertiko ateratzen ikusteko ikaraz. Ez nuen bi bider pentsatu, ez naiz damutu, odolkiak ordainetan... Pentsamenduotan murgilduta nengoela esku zeta-katsuarekin galtzetatik tira egin zenidan txanpon batzuk askatzeko adieraziz eta nik mugitzeko keinurik egiten ez nuela ikusita edo, burua altxatu zenuen zure begietan eta nireek bat egin arte.

Disimulua ezinbestekoa da gure lanean, disimulua eta abilezia, esku-atzarren trebetasuna. Azkartasuna eta larrua. Larru pixka bat ere behar bide da muturren aurrean edozeini lapurretan egiteko. Niri aitag eman zidan ezaugarri horietako bakoitzetik pixka bat nik eskatu ere egin gabe, bere-be-reak zituen keinuekin, esandako hitz bakoitzarekin eta esan gabe gordetako guztiekin. Gure familiak bazeukan dirua sobera bizirauteko, baita kapritxo zenbaitetarako ere, eta nik ez nuen entenditzen aitag zergatik egiten zuen lapurretan. Amak ez zion azalpenik eskatzen. Ni mutikoa nintzen, ez nion azalpenik eskatzen. Baina lotsarazi egiten ninduen eta neure buruari agintzen nion "handia nintzenean" ez nintzela aita bezalakoa izango. Mendekuz kendu nion urrezko katea, amorruez, ez nekien ondo atzetik zekarrena, sortuko zidan lotura. Tentazioa. Burla egiteko beharra, ze inuzenteak eta engainatzeko errazak garen demostratzeko tentazioa. Tentazioa eta beharra. Munduak ez ninduen gaztigatu, nik mundua gaztigatzeko premia igartzen nuen. Urrezko kateak, zintzilik zeukan gurutzeak odola berotzen zidan.

Eguerdiazen bueltan eskuratu beharreko gehientsuena motxilan neukan jada, 5 sorpresa artikulua baino ez zitzaizkidan falta. Sorpresa artikulua

deitzea gustatzen zitzaion Franciri, nire kasuan sorpresarik egon ez arren. Nik aterkiak osten bainituen beti. Bolognako arkuak ezagunak dira mundu osoan, arkupea arkupearen atzetik berrogei kilometro luzez. Kale estaliak aurre-atze, ezker-eskuin. “Bolognian bustitzen dena nahi duelako bustitzen da”, hala esan zidan lagun batek estreinakoz hiri handian barna galdu ginen hartan. Horregatik gustatzen zitzaidan horrenbeste euritakoak lapurtzea, bertakoek haien bene-benetako beharrik ez zeukatelako. Eta beharrik ezean, besotik zintzilik eroaten zituztelako badaezpadazko euritakoak, bistan eta aise lapurtzeko gisan.

Goiza borobil atera zitzaidan, helburu guztiak bete nituen eta irrikan nengoen Francescorekin elkartu eta eskuratutako guztia erakusteko. Tren geltokira ordua baino lehenago iritsi nintzen eta gure trenari zegokion erraileko banku libre bakarrera bidea hartu nuen. Eta orduantxe gertatu zen dena, hain azkar eta hain motel, dena hain garbi baina hain lauso...

Bizikletarik aldean eroan izan ez banu agian ez zen ezer gertatuko, nik nire bidea, zuk zurea, eta kito. Eta biok pozik. Baina baneraman baneramanez, eta gurutzatu ziren gure bideak, gutxien espero nuenean eta gutxien espero nuen moduan. Zu belauniko, nik bizikletarekin zapaldu zintudan eta gure begiak elkartu zirenean ezagutu egin ninduzun. Zutitu egin zinen, esku zeta-katsuekin nire ilea ukitu, hurbildu eta usaindu, animalien tankeran. Agudo jo zenuen begiz urrezko lepokoa, zure urrezko lepokoa. Nik bitartean arnasa hartzeko ere komeriak. Tira egin zenidan gogor katetik bi muturren arteko lotura erotik hautsiz, kokotean zauria eginez. Odol arrasto epela igarri nuen bizkarrean behera, zuk ez zenion urrezko koilareari begirik kentzen. “Treno in arrivo al binario 4”. Jendea altxatu zen eserlekuetatik, poltsak eta maletak dantzaz. Kanpoko iskanbilak oihartzun egiten zuen nire barruan. “Attenzione, allontanarsi dalla linea gialla”. Belauniko jarri zinen berriz lepokoa poltsikoan gordetzen zenuen bitartean, eskeko posiziora itzulita. Korrika igo nintzen trenera, ilaran zeudenen kexuei sorgor. Ez Francesco, ez “biglietto” eta ez lepokorik. Ez ordutik aurrera bizitzari nondik heldu ideiarik. Odol epela sumatzen nuen astiro-astiro bizkarrean behera bidea egiten.

Bertsoak

Lehenengo taldea
Saria



Markel Laskurain

Bergarako auzoak

Bakuzaga 14

Bergarako auzoak

1.-

Ea asmatzen dezuten
asmakizun hauxe
nire lagunek egin
duten bezalaxe
guztia ona dauka
ta txarra ez dakit ze
San Lorentzo auzoa
bakarrik da halaxe

2.-

Txikitatik hor bizi
eta hor jolastu
abestu dantzatu
mintzatu ta amestu
momentu onenak ere
ez ditut ahaztu
etorri ezagutu
ta auzoaz gozatu

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227176>

Bertsoak

Lehenengo taldea
Saria



Ainara Rubio

Oporrak

Bakuzaga 14

Oporrak

Lasaitasu dexente
Leku guztietan
Hiri handietan ere
Baita herrietan

Etorri, ez geratu
Familia eta lagun
Denok elkarturikan
Disfruta dezagun

Oporrak datozela
Klaseak bukatzean
Egun eguzkitsuak
Baita iluntzean

Leku asko ditugu
Familia eta lagun
Hondartza eta poza
Denentzat nahi dugu

Laister oporrak dira
Lasaitzeko egunak
Zoragarria bada
Horrela egotea

Liluragarria ere
Denbora librean
Lagunekin egoten
Algara airean

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227177>

Bertsoak

Bigarren taldea
1. saria



Benat Loñe

San Martzialak

Bakuzaga 14

San Martzialak

(Doinua : Maritxu Nora Zoaz)

Goizean esnatu eta
preparatzen gara
festa giroa dago
Kalean euskara

San Martzialera igo
Ondo pasatzeko
txorizo eta saltsa
goxo prestatzeko

Sokatitik tira egin
Kuadrillan ibiliz
tripa ondo beteta
txarangakin jaitsi

Jende guztia dago
gutziz txoratuta
San Martzialera igo
egin behar dula

Festa giro aparta
bagoaz aldapan
idiak aurreanda
gurdia atzean

Salto ta brinko dabil
zelaian jendea
laster helduko data
tripa betetzea

Momentu espeziala
Bergaran bakarra
hau ez dago askotan
ez da ez makala

Bergarako mendi baten
daude ospakizunak
zer mendi dan horixe
da igarkizun bat

Udan sartuta zaude
eguzki betean
ze ondo egoten den
hor mendi gainean

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227154>

Bertsoak

Bigarren taldea
2. saria

Euskaraz
bizi
nahi dot

Yasmin Chohan

Oporrak

Bakuzaga 14

Oporrak

(Doinua: Triste bizi naiz eta)

Eskola bukatu da
motxilak etxera
klasea bukatu da
errelaxatzera
Eguzkia hemen da
Goazen bañatzera
txanpiosa hasi da
goazen ikustera.

Eskolara joateko
oraindik falta da
Oin lanak bidaltzeko
denbora pasau da
Zarautzen bañatzeko
eguzkia egon behar da
ta gero bueltatzeko
gogorik ote da.

Yasmintxo nora hoa
uda pasatzera
pakistanera noa
ondo egotera
Kepito nora hoa
uda igarotzera
Amerikara noa
inglesa ikastera.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227244>

Bertsoak

hirugarren taldea
1. saria



Urko Egana

Egonean lan

Bakuzaga 14

Egonean lan

(Doinua: Casablanca)

1.

Kauen! Berriro ere
despertadorea!
Ni ezezik mugitu
da nire ohea ...
Datorkigun eguna
jakinda ordea
ohean geratzea
litzake hobea. (hir)

2.

Ohetik jaikitzeke
izu bezain nagi
egon arren eguna
hasi nahi dut argi.
Kafesnea eta bi
madalena handi
ditudala ekingo
diot egunari. (hir)

3.

Piztu ordenagailua,
"animo mutila!"
Lanik ez den tokian
hasi naiz lan bila!
Zer naiz inuzentea ...
Zer naiz inutila ...
Nik atera behar dut
petrolio pila! (hir)

4.

Hiru "v" bikoitz puntu
Lanbide puntu net
Web orrian zedozer
lortu nahi dutenek
ta beti saltseatzen
ibiltzen direnek
badakite gauz onik
ez duela honek. (hir)

5.

Web orrian daramat
ordu erdi gertu!
Nola ez haserretu
ta nola ez lehertu!
Kafesnea hoztu ta
madalenak urtu
arren eskaintza onik
ez bazait agertu! (hir)

6.

Baina dagoenari
jarri naiz begira,
horiekin saiatu
beharko naiz, tira!
Hamaika Curriculum
email bidez di-da
bidali ditut heltzen
ez diren tokira. (hir)

7.

Azken ordutan ez dut
jaso erantzunik,
ta honezkero ez dut uste
jasoko dudarik.
Beraz biharko ez dut
aldatuko planik,
atzo gisan ez baitut
gaur aurkitu lanik. (hir)

8.

Bazkaltzen hasterako
afalordua da,
ordu en nozioa
galdu dut behar bada.
Kokoteraino jan ta
betiko gisara,
telebista ikustera
nijoaz salara. (hir)

9.

Gaueko hamabiak
gutxi gora-behera
izango dira eta
banoa ohera.
Nahiz eta oheratu
lasaitu antzera.
bihar maldizioka
esnatuko gera. (hir)

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227167>

Komikiak


Lehengo taldea
Saria



Mikel Ballesteros

Sua komikian

Bakuzaga 14



Komikiak

Lehengo taldea
Saria




Huma Jabbar


Zirkulazio aparatua

Bakulzaga 14

Zirkulazio operatua




Oso ondo pasatzen ari
zen odol tanta bat.
Dapatzen goiko anizketa
tik behelko bantikulua
pasatu zen.
Gusto ederra!



Oso ondo pasatzen ari
egin zion eta goiputze
osoa joan zen. Oso
urdui jarri zen!



Geso goiputze osoa
bidaritzen ari zela
globulu gorriak, globulu
txuriak eta plaketen
laguna bihurtu zen.



Lehen odol tanta
perturbatzen zuen
batak ez zuela
erretxatze baliu baina
basa lagunei esker
konturatu zen berak
gaurko anizketa baliu
zuela.

Komikiak

Bigarren taldea
1. saria



Nicole Suarez

Untxi magikoa

Bakuzaga 14



Komikiak


Bigarren taldea
2. saria



Iker Aldai

Beckenbauer vs Cruyff

Bakulzaga 14



Komikiak

Hirugarren taldea
1. saria




Joseba Carnicero

Naturak ez du ahazten

Bakuzaga 14

"NATURAK EZ DU AHAZTEN"



Komikiak

Hirugarren taldea
2. saria



M. Angeles Padilla

Kafea hartu ta... hor konpon

Bakulzaga 14

KAFEA HARTU TA ... HOR KONPON!

